

Euskal AEko esportazioek moteldu egin dute beherakaden erritmoa, eta % 2,2ko jaitsiera izan dute 2023ko irailean

Urteko metatuan, esportazioek 24.000 milioi euroko zenbatekoa gainditu dute, eta % 0,2ko aldakuntza positiboa izan dute; ondasunen superabita 3.688 milioi eurora iritsi da

Eustatek landutako datuen arabera, Euskal AEko ondasunen **esportazioek** (2.787 milioi euro) % 2,2ko beherakada nominala izan dute 2023ko irailean, aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta, batez ere produktu energetikoen % 32,2ko beherakada izan dutelako. Produktu ez-energetikoen, berriz, % 0,4ko igoera izan dute.

Inportazioen kasuan (2.268 milioi euro), % 9,7ko beherakada gertatu da. Inportazio ez-energetikoen % 8,5eko beherakada izan dute, eta inportazio energetikoen % 12,8koa. Nolanahi ere, urtetik urterako alderaketa inportatutako tonekin egiten badugu, % 14,5eko igoera gertatu da. Izan ere, 2022ko irailean 865.754 tona inportatu ziren, eta aurtengo hilabete berean, berriz, 991.151.

Merkataritza-saldoa positiboa izan da, eta 518,9 milioi euro ingurura iritsi da. Horrela, beraz, % 122,9ko estaldura-tasa ahalbidetu da.

Euskal AEko ondasunen kanpo-merkataritzaren bilakaera. Milaka eurotan. Iraila 2023

	ESPORTAZIOAK			INPORTAZIOAK		
	Iraila			Iraila		
	2022	2023	Gehikuntza (%)	2022	2023	Gehikuntza (%)
EUSKAL AE						
HILABETEA, GUZTIRA	2.850.349	2.786.501	-2,2	2.509.920	2.267.648	-9,7
ENERGIAZKO GAIAK	234.549	159.061	-32,2	674.842	588.361	-12,8
ENERGIAZKOAK EZ DIREN GAIAK	2.615.800	2.627.440	0,4	1.835.078	1.679.287	-8,5
URTEKO METATUA	24.239.354	24.298.985	0,2	21.872.890	20.610.612	-5,8
ENERGIAZKO GAIAK	2.128.376	1.187.520	-44,2	6.334.918	5.247.369	-17,2
ENERGIAZKOAK EZ DIREN GAIAK	22.110.978	23.111.465	4,5	15.537.972	15.363.243	-1,1
ARABA / ÁLAVA						
HILABETEA, GUZTIRA	907.759	927.489	2,2	504.200	532.058	5,5
URTEKO METATUA	6.875.035	7.694.891	11,9	4.218.501	4.554.736	8,0
BIZKAIA						
HILABETEA, GUZTIRA	1.131.697	1.010.470	-10,7	1.496.891	1.296.462	-13,4
URTEKO METATUA	10.020.832	9.093.104	-9,3	13.353.890	12.094.333	-9,4
GIPUZKOA						
HILABETEA, GUZTIRA	810.893	848.541	4,6	508.830	439.127	-13,7
URTEKO METATUA	7.343.487	7.510.990	2,3	4.300.498	3.961.544	-7,9

Data 2023ko Azaroaren 17a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Irailean erregistratutako hazkunde-tasa negatiboa Bizkaiko lurraldean izandako jaitsiera handiak baldintzatu du (% 10,7ko jaitsiera). Araban, tasa horrek % 2,2ko igoera izan du, eta Gipuzkoan, berriz, % 4,6koa. Bizkaiaren kasuan, esportazio energetikoek % 32,4ko beherakada izan dute aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta. Lurralde horretan, azken zazpi hilabetetan erregistratu dira tasa negatiboak.

Araban, esportaziorik handienak honako hauetan egin dira nagusiki: *“Garraio-materiala”* (guztizkoaren % 62,1), % 2,4ko igoerarekin eta guztira 576,2 milioi euroko esportazioekin; eta *“Metalak eta haien manufakturak”* (guztizkoaren % 15,1), % 6,5eko jaitsierarekin; horiek izan dira iraileko “muga-zergen bi sekziorik” garrantzitsuenak. Igoera handia izan duen partida bat *“Material, makina eta aparatu elektrikoak”* izan da berriz ere (% 35,9ko igoera). Partida horretan, esportazioen balioa 60,3 milioi eurora iritsi da.

Gipuzkoan, nazioarteko merkataritzaren hiru laurden (% 76,9) muga-zergen hiru sekziotan bildu da, urtetik urterako alderaketan portaera desberdina izan badute ere: *“Material, makina eta aparatu elektrikoak”* (% 6,1eko igoera), *“Garraio-materiala”* (% 75,4) eta *“Metalak eta haien manufakturak”* (-% 14,6).

Bizkaiaren kasuan, gora egin dute *“Material, makina eta aparatu elektrikoak”* eta *“Garraio-materiala”* sekzioek (% 6,3 eta % 10,9, hurrenez hurren). *“Produktu mineral eta energetikoak”* sekzioak, berriz, beherakada handia izan du (-% 30,1), aurreko urteko hilabete berean baino 70,6 milioi euro gutxiagorekin (163,9 milioi euro guztira) eta 103.508 tona gutxiagorekin.

Jatorri eta helmugako herrialdeak, 2023ko iraila

2023ko irailean, bost herrialde (Alemania, Frantzia, Ameriketako Estatu Batuak, Erresuma Batua eta Italia) izan dira Euskal AEko bezero nagusien taldea osatu dutenak, esportazio guztien % 52,7 hartu baitituzte (1.469,4 milioi euro). Herrialde horietako hiru EB-27koak dira (entitate horrek guztizkoaren % 62,5 bildu du).

Alemania esportazioen sailkapeneko lehen tokian geratu da, 483,9 milioi eurekin, eta jasotzen dituen 402 produktu moten artean, automobilaren sektoreari lotutakoak nabarmendu dira: *“10 pertsona baino gutxiagoko turismoak”* (151,5 milioi euro), *“Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak”* (82,4 milioi euro), *“Ibilgailu automobilen zatiak eta osagarriak”* (38,5 milioi euro) eta *“Kautxuzko pneumatiko berriak”* (23,4 milioi euro).

Frantziara egindako esportazioak 399,4 milioi eurora iritsi dira hilabete honetan, eta honako hauetan egin dira nagusiki: *“Ibilgailu automobilen zatiak eta osagarriak”* (30,5 milioi euro), *“Petrolioaren edo material bituminosoaren olio gordinak”* (27,0 milioi euro), *“Kautxuzko pneumatiko berriak”* (26,0 milioi euro), *“Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak”* (16,9 milioi euro) eta *“10 pertsona baino gutxiagoko turismoak”* (16,7 milioi euro). Guztira, 661 produktu mota izan dira.

Hirugarren tokian Ameriketako Estatu Batuak kokatu dira, 263 milioi eurekin, eta esportazioak honako partida hauetan egin dira: *“Petrolioaren olio finduak”* (94,4 milioi euro), *“Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak”* (28,2 milioi euro), *“Soldadurarik gabeko burdinazko edo altzairuzko hodi eta profil hutsak”* (22,4 milioi euro) eta *“Biodiesela eta haren nahasteak”* (14,3 milioi euro). Guztira, 369 produktu mota izan dira.

Euskal Autonomia Erkidegoak Erresuma Batura egindako esportazioak 167,3 milioi eurora iritsi dira, eta honela banatu dira: *“Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak”* (22,3 milioi euro), *“Aleatu gabeko burdinazko edo altzairuzko profilak”* (18,7 milioi euro) eta *“Turboerreaktoreak, turbopropultsoreak eta gainerako gas-turbinak, piezak eta osagaiak barne”* (15,4 milioi euro). Guztira, 411 produktu mota izan dira.

Italiara 155,9 milioi euroko esportazioak egin dira, eta honako hauek nagusitu dira egindako transakzioetan: *“Trenbideetarako automotorrak eta tranbia autopropulsiatuak”* (17,3 milioi euro), *“Kautxuzko pneumatiko berriak”* (14,9 milioi euro) eta *“10 pertsona baino gutxiagoko turismoak”* (10,2 milioi euro). Guztira, 396 produktu izan dira.

Bestalde, Errusiara egindako esportazioak (4,2 milioi eurokoak) *“Ontziak eta paketatzeko aparatuak garbitu, bete, itxi eta etiketatzeko makinak”* eta *“Ibilgailu automobilen zatiak eta osagarriak”* sekzioetan egin dira nagusiki (1,2 milioi eta milioi 1 euro, hurrenez hurren). Guztira, 20 produktu mota izan dira.

Gure **inportazioen** % 50,7 EB-27tik iritsi dira hilabete honetan. Herrialderik garrantzitsuenen artean, Alemania nabarmendu da (362 milioi euro), batez ere *“Ibilgailu automobilen zatiak eta osagarriak”*, *“Enbolo, diesel edo erdi-diesel motorrak”* eta *“Ijeztutako produktu lauak, aleatu, txapatu edo estali gabeko burdinazkoak edo altzairuzkoak > 599 mm”* partidetan (62,6, 42,4 eta 21,9 milioi euro, hurrenez hurren).

Frantziaren kasuan, produkturik eskatuena *“Galdaketako, burdinazko edo altzairuzko txatarra”* izan da, 23,3 milioi eurekin (179,2 milioi euro guztira).

EBtik kanpo, Brasil nabarmendu da, 192,6 milioi eurekin. Zenbateko horretatik, 182,8 milioi euro *“Petrolioaren edo material bituminosoaren olio gordinak”* partidari dagozkio.

Txinatik inportatutako produkturik garrantzitsuenak *“Metagailu elektrikoak eta haien zatiak”* izan dira berriz ere, 46,5 milioi eurekin (186,3 milioi euro guztira).

Hilabete honetan, Errusiako inportazioak 5,2 milioi eurora iritsi dira, eta honela banatu dira: *“Landu gabeko aluminioa”* (3,4 milioi euro), *“Landu gabeko nikela, aleatuta edo aleatu gabe”* (0,7 milioi euro) eta *“Titanioa eta haren enbaturak, hondakinak barne”* (0,3 milioi euro).

Inportazio energetikoak honela banatu dira: 249,7 milioi Amerikakoak (% 42,4), eta, haien barruan, 182,8 milioi Brasilgoak eta 42,4 milioi Mexikokoak; 228,5 milioi Afrikakoak (% 38,8), eta, haien barruan, 135,8 milioi Libiakoak, 57,3 milioi Ghanakoak, 20,3 milioi Nigeriakoak eta 14,9 milioi Aljeriakoak; 76,9 milioi Asiakoak (% 13,1), eta, haien barruan, 38 milioi Kuwaitekoak eta 29,7 milioi Saudi Arabiakoak; eta 33,3 milioi Europakoak (% 5,7), eta, haien barruan, ia guztiak Belgikakoak (30,4 milioi).

2023ko irailean merkaturatutako produktuak

Produktuen xehetasuna lau digitura eramanez gero ikus daitekeenez, **muga-zergen** hamar **partida** nagusiek **esportazioen** % 44,9 bildu zituzten 2023ko irailean, 1.250,7 milioi euroko balioarekin.

Euskal AEko hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Iraila 2023

	2022	2023	2023 (%)	2023/2022 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	2.850.349	2.786.501	100,0	-2,2
10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	304.218	340.021	12,2	11,8
Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	178.734	208.310	7,5	16,5
Automobilentzako zati eta osagarriak	215.534	197.621	7,1	-8,3
Kautxuzko pneumatiko berriak	110.305	122.643	4,4	11,2
Petrolioaren olio finduak	213.970	118.367	4,2	-44,7
Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	73.508	60.757	2,2	-17,3
Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	49.436	53.361	1,9	7,9
Arrantza-itsasontziak eta itsasontzi faktoriak itsas produktuen tratamendurako	2.000	50.658	1,8	2.432,9
Aduana-tarifan berariaz jasota ez dauden merkantziak	51.554	49.788	1,8	-3,4
Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	40.368	49.218	1,8	21,9
Burdina edo altzairuzko gainerako manufaktura	36.935	41.448	1,5	12,2
Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropulsatuetarako	17.532	35.540	1,3	102,7
kateak eta horien galdaketako, burdinazko edo altzairuzko zatiak	4.425	30.223	1,1	582,9
Turborreaktoreak, turbopropulsatzaileak eta gainerako gas-turbinak, bere piezak eta osagaiak barne	19.538	28.169	1,0	44,2
Petrolioaren edo mineral bituminosoen olio gordinak	0	26.973	1,0	-
0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafiak eta tirak	20.461	25.913	0,9	26,6
Gainerako altzairu aleatuen barrak eta profilak eta zulatzeak barra hutsak	36.939	25.685	0,9	-30,5
Zura, plastikoa edo antzeko gai gogorak lantzeko makina-erremintak (iltzatzea, grapatzea, mihizatzea, zerratzea, arrabotzea, harriz lantzea, zulatzea...)	1.845	24.828	0,9	1.245,4
Galdaketa, burdina edo altzairuzko beste manufaktura moldeatu batzuk	25.268	24.228	0,9	-4,1
Altzairu herdoilgaitzeko barra eta profilak	28.909	22.091	0,8	-23,6
Xafien bidez eraikitutako, barrak, profilak, tutuak eta fundicion-etako, burdinako edo altzairuko antzeko	27.961	21.609	0,8	-22,7
Burdinako edo altzairuko beste tutu batzuk eta profil hutsak	33.433	20.730	0,7	-38,0
Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak	15.387	19.076	0,7	24,0
Transformadore elektrikoak, bihurgailu estatikoak eta erreaktantzia-bobina	22.367	18.773	0,7	-16,1
Metal arruntzako giltzarapo, sarraila, morroilo eta giltzak	19.030	18.406	0,7	-3,3

(p)Behinbehineko datuak

Data 2023ko Azaroaren 17a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

25 muga-zergen partidaz osatutako talde horren barruan, haietako hiruk izan duten igoera nabarmendu da: *“Petrolioaren edo mineral bituminosoen olio gordinak”* (27 milioi euroko esportazioak), *“Itsas produktuak tratatzeko arrantza-ontziak eta faktoria-ontziak”* (50,7 milioi euro), *“Zura, plastikoa edo antzeko gai gogorak lantzeko makina-erremintak (iltzatzea, grapatzea, mihizatzea, zerratzea, harriz lantzea, zulatzea...)”* (24,8 milioi euro) eta *“Galdaketako, burdinazko edo altzairuzko kateak eta haien zatiak”* (30,2 milioi euro). Azpimarratu beharra dago, bestetik, *“Petrolioaren olio finduak”* partidak izan duen beherakada (-% 44,7), aurreko urteko hilabete berean baino 95,6 milioi euro gutxiagorekin.

Inportazioen kasuan, eta muga-zergen partidarik garrantzitsuenei dagokienez, igoerarik handienak honako hauetan gertatu dira: *“Petrolioaren olio finduak”* (% 159,6; 87,1 milioi euroko inportazioak), *“Ijeztutako produktu lauak, aleatu, txapatu edo estali gabeko burdinazkoak edo altzairuzkoak > 599 mm”* (% 286,9) eta *“Metagailu elektrikoak eta haien zatiak”* (% 67,1).

Jaitsieren kasuan, partidarik garrantzitsuena *“Petrolioaren edo mineral bituminosoen olio gordinak”* izan da (gutzizkoaren % 19,5), eta % 25,4ko beherakada izan du inportazioetan (2022ko hilabete berean baino 151,1 milioi euro gutxiago inportatu dira). Nolanahi ere, erosketen guttizkoa 442,8 milioi eurora iritsi da.

ARABA. 2023ko iraileko esportazioak

Arabaren esportazioek % 2,2ko igoera izan dute aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta. Portaera hori muga-zergen lau partida nagusietan agertu da. Izan ere, “10 pertsona baino gutxiagoko turismoak” partida (306,2 milioi euro) % 1,3 igo da, eta “Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak” partida (208,2 milioi euroko esportazioak), berriz, % 16,7. Halaber, gora egin dute honako hauek: “Soldadurarik gabeko burdinazko edo altzairuzko hodi eta profil hutsak” (% 17,9) eta “Kautxuzko pneumatiko berriak” (% 15,7), 45,4 milioi euroko esportazioekin.

Arabako hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Iraila 2023

	2022	2023	2023 (%)	2023/2022 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	907.759	927.489	100,0	2,2
10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	302.342	306.209	33,0	1,3
Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	178.499	208.244	22,5	16,7
Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	41.461	48.869	5,3	17,9
Kautxuzko pneumatiko berriak	39.209	45.367	4,9	15,7
Automobilentzako zati eta osagarriak	58.691	42.671	4,6	-27,3
Ardoa, mahats freskoarena	18.058	15.679	1,7	-13,2
Burdinako edo altzairuko beste tutu batzuk eta profil hutsak	16.776	13.787	1,5	-17,8
Altzairu herdoilgaitza, lingotetan edo bestelako forma primarioekin	8.892	8.448	0,9	-5,0
Motorra duten edo ez duten aireontzien zatiak, tripulatuak izan edo ez, eta satelite eta ibilgailu espazialen zatiak	9.544	7.823	0,8	-18,0
Metal arruntezko ontzietarako tapoiak, tapak eta beste osagarri batzuk	11.506	7.277	0,8	-36,8

(p)Behinbehineko datuak

Data 2023ko Azaroaren 17a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

BIZKAIA. 2023ko iraileko esportazioak

Bizkaiko lurralde historikoan, esportazioek % 10,7ko beherakada izan dute. Bizkaiko esportazioen sailkapenean lehenengoa den “Petrolioaren olio finduak” partidak eragin du batez ere beherakada hori. Izan ere, % 45,1 txikiagoa izan da, eta esportazioen zenbatekoa 115,4 milioi eurora iritsi da (210 milioi euro aurreko urteko hilabete berean), hau da, 94,6 milioi euroko jaitsiera izan du.

Muga-zergen partida nagusien artean, “Petrolioaren edo mineral bituminosoaren olio gordinak” partidari lotutako esportazioen igoera nabarmendu da, 27 milioi euroko esportazioak egin baitira Frantziara. Halaber, % 100etik gorako igoerak izan dira “10 pertsona baino gutxiagoko turismoak” eta “Galdaketako, burdinazko edo altzairuzko kateak eta haien zatiak” partidetan.

Bizkaiko hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Iraila 2023

	2022	2023	2023 (%)	2023/2022 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	1.131.697	1.010.470	100,0	-10,7
Petrolioaren olio finduak	209.949	115.351	11,4	-45,1
Automobilentzako zati eta osagarriak	86.357	78.179	7,7	-9,5
Kautzuko pneumatiko berriak	70.578	76.804	7,6	8,8
Aduana-tarifen berariaz jasota ez dauden merkantziak	48.517	48.526	4,8	0,0
kateak eta horien galdaketako, burdinazko edo altzairuzko zatiak	3.334	29.565	2,9	786,8
Turborreaktoreak, turbopropulsaileak eta gainerako gas-turbinak, bere piezak eta osagaiak barne	19.079	28.041	2,8	47,0
Petrolioaren edo mineral bituminosoen olio gordinak	0	26.973	2,7	-
Burdina edo altzairuzko gainerako manufakturrak	16.551	18.712	1,9	13,1
0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafiak eta tirak	14.914	18.523	1,8	24,2

(p)Behinbehineko datuak

Data 2023ko Azaroaren 17a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

GIPUZKOA. 2023ko iraileko esportazioak

Gipuzkoan, esportazioek % 4,6ko igoera izan dute. % 100etik gorako igoerak gertatu dira honako partida hauetan: *“Itsas produktuak tratatzeko arrantza-ontziak eta faktoria-ontziak”, “Zura, plastikoa edo antzeko gai gogorrrak lantzeko makina-erremintak (iltzatzea, grapatzea, mihizatzea, zerratzea, harriz lantzea, zulatzea...”, “Trenbideetarako automotorrak eta tranbia autopropulsaileak” eta “Paper-orea, papera edo kartoia lantzeko gainerako makinak, ebakigailuak barne”.*

Gipuzkoako hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Iraila 2023

	2022	2023	2023 (%)	2023/2022 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	810.893	848.541	100,0	4,6
Automobilentzako zati eta osagarriak	70.485	76.771	9,0	8,9
Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	68.423	58.390	6,9	-14,7
Arrantza-itsasontziak eta itsasontzi faktoriak itsas produktuen tratamendurako	0	50.657	6,0	-
Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropulsaileetarako	17.532	35.540	4,2	102,7
Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	28.515	32.212	3,8	13,0
Zura, plastikoa edo antzeko gai gogorrrak lantzeko makina-erremintak (iltzatzea, grapatzea, mihizatzea, zerratzea, arrabotzea, harriz lantzea, zulatzea...)	1.723	24.782	2,9	1.338,1
Burdina edo altzairuzko gainerako manufakturrak	18.390	20.855	2,5	13,4
Metal arruntzeko giltzarriak, sarriak, morrolo eta giltzak	18.006	16.991	2,0	-5,6
Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak	12.470	16.299	1,9	30,7
Paper orea, papera edo kartoia lantzeko gainerako makinak, ebakigailuak barne	6.261	15.436	1,8	146,5

(p)Behinbehineko datuak

Data 2023ko Azaroaren 17a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

2023KO METATUA (URTARRILA-IRAILA): ondasunen esportazioek % 0,2ko igoera izan dute, merkataritza-saldoa 3.688 milioi eurotik gorakoa izan da, eta estaldura-tasa % 117,9a iritsi da

2023ko lehen bederatzi hilabeteetan, Euskal AEko **esportazioek** % 0,2ko igoera izan dute aurreko urteko aldi berarekin alderatuta, eta, beraz, 59,6 milioi euro gehiago lortu dira esportazioetan. Aldi horretako esportazioen zenbatekoa 24.299 milioi eurora iritsi da, eta ekarpenik handiena Bizkaia egin du, 9.093 milioi euroekin (guztizkoaren % 37,4). Atzetik, Araba (7.695 milioi euro) eta Gipuzkoa (7.511 milioi euro) kokatu dira.

Arabian, esportazioek 819,9 milioi euroko igoera izan dute 2022ko aldi berarekin alderatuta (% 11,9). Gipuzkoan, igoera askoz txikiagoa izan da (% 2,6, hau da, 2022an baino 167,5 milioi euro gehiago). Bizkaian, berriz, bilakaera negatiboa izan da (927,7 milioi euro gutxiago, hau da, % 9,3ko beherakada).

Esportatutako produktu mota kontuan hartuta egiazta daitekeenez, “produktu ez-energetikoek” bilakaera positiboa izan dute, 1.000,5 milioi euro gehiagorekin. “Produktu energetikoen” esportazioak, berriz, 2022ko irailera bitarte metatutakoak baino % 44,2 txikiagoak izan dira (940,9 milioi euro gutxiago).

Euskal AEko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera, urteko metatua (p). Iraila 2023

	Kodea	Izendapena	Mila euro
		ESPORTAZIOAK GUZTIRA	24.298.985
1	8703	10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	2.298.497
2	8708	Automobilentzako zati eta osagarriak	1.690.051
3	8704	Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	1.594.270
4	4011	Kautxuzko pneumatiko berriak	1.107.485
5	2710	Petrolioaren olio finduak	968.187
6	7304	Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	567.122
7	7216	Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	522.349
8	8481	Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	425.747
9	9990	Aduana-tarifa berariaz jasota ez dauden merkantziak	347.731
10	7326	Burdina edo altzairuzko gainerako manufaktura	321.640
11	8603	Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropulsatuetaarako	300.787
12	7228	Gainerako altzairu aleatuen barrak eta profilak eta zultzeko barra hutsak	281.267
13	7222	Altzairu herdoilgaitzeko barra eta profilak	273.504
14	8411	Turborreaktoreak, turbopropulsatzaileak eta gainerako gas-turbinak, bere piezak eta osagaiak barne	213.902
15	8504	Transformadore elektrikoak, bihurtzaile estatikoak eta erreaktantzia-bobina	213.385
16	7606	0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafiak eta tirak	212.180
17	1518	Erabilera tekniko industrialetarako kolpeak eta olioak (animalia- edo landare-)	211.675
18	7325	Galdaketa, burdina edo altzairuzko beste manufaktura moldeatu batzuk	211.179
19	7308	Xafien bidez eraikitutako, barrak, profilak, tutuak eta fundicio-eta, burdinako edo altzairuko antzeko	207.252
20	8607	Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak	201.799
21	7306	Burdinako edo altzairuko beste tutu batzuk eta profil hutsak	199.863
22	0303	Arrain izoztua xerratu gabe	192.974
23	8428	Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraiagailuak, etab.	192.897
24	8483	Transmisio-ardatzak, kojinetak, engranajeak, enbrageak, etab.	181.026
25	8301	Metal arruntzeko giltzarrapo, sarraila, morroilo eta giltzak	173.310

(p)Behinbehineko datuak

Data 2023ko Azaroaren 17a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Hamar produkturik (edo muga-zergen partidarik) salduenen zenbatekoa 9.843,1 milioi eurora iritsi da, hau da, guztizkoaren % 40,5era. Haietatik, bost produktuk hazkunde-tasa positiboak izan dituzte 2022ko aldi berarekin alderatuta. Haien artean, honako hauek nabarmendu dira: “10 pertsona baino gutxiagoko turismoak”, berriz ere Euskal AEko esportazio-bolumenik handiena izan dutenak (2.298,5 milioi euroko esportazioak eta % 24,4ko igoera), eta “Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak” (1.594,3 milioi euroko esportazioak eta % 21,0ko igoera). Portaera bikaina agertu duten gainerako partida garrantzitsuak “Soldadurarik gabeko burdinazko edo altzairuzko hodi eta profil hutsak”, “Kautxuzko pneumatiko berriak” eta “Ibilgailu automobilaren zatiak eta osagarriak” izan dira, eta % 19,2ko, % 18,0ko eta % 5,3ko igoera izan dute, hurrenez hurren.

Bestetik, “*Petrolioaren olio finduak*” partidak izan duen beherakada esanguratsua nabarmendu da (-% 50,6, hots, 2022an baino 992,7 milioi euro gutxiago). Beherakada hori ez du prezioen jaitsierak eragin soilik, esportatutako tonek ere % 43,7ko beherakada esanguratsua izan baitute (2.329.538 tona 2022an, eta 1.312.226 tona 2023ko metatuan).


Kontuan hartutako aldian, gure esportazioen helmuga-herrialdeen sailkapeneko lehenengoa Alemania izan da (guztizkoaren % 16,3). Alemaniaren atzetik, honako hauek kokatu dira: Frantzia (% 15,0), Ameriketako Estatu Batuak (% 7,9), Erresuma Batua (% 6,3) eta Italia (% 5,6). Bost herrialde horiek esportazioen % 51,2 bildu dituzte.

Euskal AE osoko **inportazioen** metatua 20.611 milioi eurora iritsi da. Urtetik urtera, metatu hori 2022ko aldi berean erregistratutakoa baino 1.262 milioi euro txikiagoa izan dela ikus daiteke. Bizkaian, inportazioen balioa 12.094,3 milioi eurora iritsi da, eta % 9,4ko beherakada gertatu da (hau da, aurreko urteko aldi berean baino 1.259,6 milioi euro gutxiago). Gipuzkoak % 7,9ko beherakada izan du (339 milioi euro gutxiago), eta inportazioen balioa 3.961,5 milioi eurora iritsi da. Azkenik, inportazioetan gora egin duen lurralde bakarra Araba izan da (% 8,0ko igoera, hau da, aurreko urtean baino 336 milioi euro gehiago), eta zenbatekoa 4.554,7 milioi eurora iritsi da.

“Produktu energetikoen” inportazioak aurreko urteko aldi berekoak baino % 17,2 txikiagoak izan dira, eta “Produktu ez-energetikoenak”, berriz, % 1,1 txikiagoak.

Euskal AEko ondasunen kanpo-merkataritzak 3.688,4 milioi euroko saldo positiboa izan du 2023ko lehen bederatzi hilabeteetan, eta, horri esker, estaldura-tasa egokia lortu da (% 117,9koa).

Euskal AEko kanpo-merkataritzaren bilakaera



Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62